



ELKARBIZITZA PLANA

- 1.- Guztiok bete beharko ditugu elkarbizitzarako oinarritzko jarrerak ikastetxeko esparru osoan (ikasgelak, pasabideak, sarrerak, patioa, jantokia, autobusak, polikiroldegia..).
- 2.- Oso garrantzitsua da elkarrenganako begirunea mantentzea, batez ere, nagusiek txikiekiko begirunea.
- 3.- Arazoak konpontzeko soluziobiderik egokiena elkarrizketa da; borrokak, aproposak ez diren jarrerak, eta abarrekoak ekidin behar dira.
- 4.- Ikasgelan dauden gauza guztiak zaindu behar dira: gurutzea, lemak, txartelak, mezuak, mahaiak, ordenagailuak, paperak eta liburuak lurrean eta abar, ordu asko bertan pasatzen ditugulako.
- 5.- Une oro zuzen eta egoki hitz egin behar da, hitz eta adierazpen zakarrik erabili gabe.
- 6.-Norberaren edo inoren materiala era arduragabean edo desegokian erabiltzeagatik ikasleak gelan zerbait urratu edo apurtzen badu, bera arduratuko da egin beharreko konponketaz.
- 7.- Irakasle eta ikaskideenganako begiruneagatik, ikasleek ordukotasuna mantenduko dute klase hasieran.
- 8.- Tutoreari eta irakasleari eman beharko zaio idatziz edozein aldentze edo atzerapenaren berri, zergatia eta data adierazten dituen ohar baten bidez.
- 9.- Klase aldaketetan ikasleek ikasgelan egon beharko dute, pasabideetara irten gabe, ikasgai batzuek eskatzen duten klase aldaketetan izan ezik.
- 10.- Klase bat bukatu ondoren eta hurrengoa hasi arte ezin izango da komunera joan. Komunera soilik joan daiteke irakaslearen baimenaz.



11.- Atsedenaldi orduetan ezin da etxesailaren barruan egon, ekintza berezi bat burutzeko ez bada, eta beti ere, irakasle batek lagunduta.

12.- Erretzea debekatuta dago ikastetxearen eremuan.

13.- Norberaren itxuraren zainketan hezitzea garrantzitsua da, arreta berezia jarritz garbitasunean.

14.- Ikastetxearen barruan debekatuta dago tresna elektronikoen erabilera (walkmanak, diskmanak, sakeleko telefonoak...).

15.- Klasera behar den materialaz etorri behar da (liburuak, koadernoak eta beharrezkoak diren beste material batzuk).

16.- Ikasleek ezin izango dira ikastetxe eremutik atera eskola ordutegian. Irtetzea beharrezkoa izango balitz, alde zuzenetik justifikatu beharko da.

17.- Ikasle batek ikasgaiaren bat egin beharko ez balu, ikasgaia ematen den klasean jarraitu beharko du bere taldearekin.

18.- Klaseko ordezkariak klaseko kalteen berri eman beharko dio tutoreari, honek banakariari adierazi diezaion.

19.- Klasearen jarduera egokia lagunduko duen jarrera izan beharko du ikasleak; portaera desegokia badu, arreta deituko zaio eta klasetik kanporatua izan daiteke, eta irakasleak agindutako lana egin beharko du.

Gainontzean, kanporaketa hauek eta baita ere beren errepikapenek, barne-arautegiak eta egungo legeak adierazitako zigorrak izando dituzte.

20.- Aurreko arau guztiak bai ikastetxean bai ikastetxetik kanpo egiten diren ekintzetan ezarriko dira (irteerak, elkarbizitzak, kirol eta kultur irteerak...).

Mila esker zuen laguntzagatik.